

20

22



Jaialdia
LITERAKTUM

Jaialdia LITERAKTUM

Literaktum, Donostiako literatur jaialdia, azaroaren 14tik 27ra egin zen, hiriko zenbait lekutan, eta literaturzale asko hurbildu ziren antolatutako 54 ekitaldietara. Guztira, 5.000 lagunetik gora izan ziren jaialdiaren programazioa osatu zuten jardueretan.

Literatura eta zinema izan zen gai nagusia

Literaktumen edizio honetan, omenaldia egin nahi izan baitzion Donostiako Zinemaldiari 70. urteurrenean. Idazleek, gidoigileek eta zine-zuzendariak beren uste eta iritziak adierazi zituzten bi hizkuntza horien arteko antz-aldeez. Gaiaren inguruan, honako idazleek hartu zuten parte, besteak beste: **Jesús Carrasco, Virginia Feito, Jon Arretxe, Eduardo Mendoza, Gabriela Ybarra, Lorenzo Silva, Abdellah Taia eta Miren Gorrotxategik**; baita **Angeles González Sinde** zine-zuzendariak eta **Joanes Urkixo eta Carlos Vila** gidoilariak ere.



Katixa Agirre © Iñaki Rubio



Jesús Carrasco © Iñaki Rubio



Virgina Feito © Iñaki Rubio



Ricardo Ugarte eta Julia Otxoa © Iñaki Rubio

Literatur berritasunek ere beren lekua izan zuten jaialdian; honako idazle hauenek: **María Oruñá, Isaac Rosa, Héctor Abad Faciolince, Iban Zaldúa, Pello Lizarralde** eta **Katixa Agirre**. Idazleekin egindako jardueretan, **Eduardo Mendoza** eta Héctor Abad Faciolincerenek bildu zuten jende gehien.

Bi urteurren izan ziren literatur jaialdian: **Pío Barojaren** jaiotzaren 150. urteurrena, zeinaren kariatara **Soledad Puértolas** eta **Luis Antonio de Villenaren** solasaldia eta Pío Baroja: postales literarias erakusketa izan baitziren; eta **Juan San Martinen** jaiotzaren mendeurrena, zeina haren seme Oierrekiko elkarrizketan gogoratu baikenuen.



Eduardo Mendoza, Lugaritz © Iñaki Rubio



Isaac Rosa © Iñaki Rubio



Angeles Gonzalez Sinde eta Gabriela Ibarra © Iñaki Rubio



Soledad Puértolas eta Luis Antonio de Villena © Iñaki Rubio

Horrez gain, **Literaktum**ek izan zituen literatura beste hizkuntza batzuekin solasean jarri zuten jarduerak ere: mahai inguruak, poesia-irakurketak, errezital musikatuak, irrati-tailerra, antzezlanak, bideoforum bat, bertsoen literatur saioa eta bost erakusketa.

Haurrentzako **Literaktum Txiki** programak ere parte hartze handia izan zuen. Ipuin-kontalariak, antzezlanak, Haurren 6. Egun Unibertsaleko jaia, lantegiak eta ilustrazio lehiaketa bat ***Txano eta Oskarren abenturak*** liburu-bildumari buruz: programa zabala osatu zuten denen artean. 6 eta 12 urte arteko haurrek egindako 120 ilustraziotik gora aurkeztu ziren lehiaketara.



Ilustrazio sari banaketa © Iñaki Rubio

Jaialdia amaitu ondoren ere **gozatu ahal izan genuen egileek adierazitakoaz, nola eta topaketen audioak entzunez DK ON!** Donostia Kultura Irratiaren **webgunean eta podcast plataforma nagusietan.**

Literaktum jaialdiaren egunetatik kanpo, Literaktum Topaketak izeneko bi ekitaldi izan ziren: lehena apirilean, **Petros Márkarisekin**, eta bigarrena irailean, **Selva Amadarekin**. Ekinbide hori 2021ean hasi zen, gaur egungo literatur egile nabarmenenek Donostia bisita zezaten urtean zehar, ikus-entzuleekin partekatze beren ibilbidea eta asmoak.